

Aurrekontuak 2024. Ziklo aldaketa baterako aurrekontuak

Eraldaketa handiek eta azkarrek (energetikoak, demografikoak, zaintza sistemarenak, teknologikoak), konbultsio ekonomikoek eta ziurgabetasunak ezaugarritutako testuinguru batean iritsi da aurten aurrekontuei buruzko eztabaida. Inflazio handiak ezaugarritutako salbuespeneko testuingurua ere bada. Inflazioak, modu koiunturalean bada ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan diru-bilketa nabarmen haztea ekarri du, eta Jaurlaritzaren aurrekontu proiektua 15.025 milioi eurora iristea ahalbidetu.

Trantsizio handien garaian bizi gara eta datozen urte eta hamarkadetan aldaketa handiak egin beharko ditugu, herri gisa aurrean ditugun erronka sozial eta ekonomikoek hala eskatuko dutelako. Politika publikoak berrantolatu beharko ditugu sortuko diren agertoki berrietara egokitzeko, eta Jaurlaritzaren aurrekontuek tresna bat izan behar dute norabide horretan. Ziklo aldaketa baterako aurrekontuak izan behar dute, eta horrek esan nahi du inbertsio publikoan egiturazko aurrerapenak, kualitatiboak, egin behar direla ongizatean eta zerbitzu publikoen prestazioan kalitatezko parametroak bermatzeko, bizitzaren garestitzeari aurre egiteko eta trantsizio energetikoan sakontzeko.

Datozen urteotan aldaketa handiak egin beharko dira, eta aurrekontuek tresna bat izan behar dute norabide horretan.

Egoera honetan gobernuak ezin dira iruzkingilearen lana egitera mugatu. Dagokien funtzioa ez da gertatzen dena jendeari azaltzea; eragile aktiboak izan behar dute aurrean ditugun erronkek eskatzen dituzten agertokiak sortzen saiatzeko. Jaurlaritzak, baina, iruzkingilearen funtzioa hartu du beretzat, neurri handi batean eragile aktiboa izateari uko eginez. Hala, 2024rako onartu duen aurrekontu proiektuak ohiko irakurketa autokonplazientea egiten du eta ez dakar bestelako

berrikuntzarik. Betiko aurrekontuak aurkeztu ditu betikoa egiten jarraitu nahi duelako, oraingoan diru apur bat gehiagorekin, lehen esan bezala, inflazio handiaren ondorioz aurten diru-bilketa ohi baino altuagoa izan delako.

EH Bilduren iritziz, aurrekontu proiektuak ez du egoerak eskatzen duen neurria ematen. Herri bezala, agerikoak diren egiturazko arazoak metatzen ari zaizkigu hainbat arlo estrategikotan. Herritarrak oso kontziente dira arazo horietaz, askotan lehen pertsonan pairatzen dituztelako, eta egonezina gero eta sektore zabalagoetara hedatzen ari da. Jaurlaritzaren aurrekontu proiektuak, aldiz, ez du oinarririk ezartzen egoera kezkarri hori iraultzeko, ez ditu baldintzak ipintzen gainbehera hori gelditzeko.

Aurrekontu hauen bueltan hartzen diren eta hartzen ez diren erabakiek izugarrizko inpaktua izango dute herritarren bizitzetan, eta horrek ezinbesteko egiten du momentua irakurtzen jakitea, aurrekontua etorkizun hobe baten oinarriak ipintzeko tresna eraginkorra izan dadin. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak herri proiektu sendo eta partekatu bat behar dute, eta aurrekontuak hori ahalbidetzeko balio behar du. Baliabideak egon badaude, eta ez dago aitzakiarik aukera ez baliatzeko. Hori da EH Bilduren borondatea, proposamen honen helburua, betiere herritarrek eskatzen dituzten erantzunak emateko. Aurten koiunturala izan den diru-bilketaren hazkundera baliatu behar dugu eskuartean ditugun arazoei erantzuteko eta beharrezko ditugun aldaketa estrukturalak egiten hasteko, etorkizunera begirako oinarriak ezartze aldera, egon badagoelako gobernantza eta kudeaketa eredu alternatibo bat.

Aurrekontuek jauzi kualitatibo bat egiteko balio behar dute, herritarren ongizatean eta zerbitzu publikoen kalitatean aurrera egiteko.

Hori horrela, 2024ko aurrekontuek jauzi kualitatibo bat egiteko balio izatea nahi du EH Bilduk, herritarren ongizatean eta zerbitzu publikoen kalitatean aurrerapauso bat emateko, Osasunean eta Hezkuntzan bereziki, eta bizitzaren garestitzeari aurre egiteko, Jaurlaritzak lidergoa hartuta.

1- ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTZEA ONGIZATEA BERMATZEKO

1. OSASUNAREN SUSTAPENA ETA ARRETARAKO SARBIDEA HOBETZEKO EGITURAZKO NEURRIAK:

- **Itxaron zerrendak murriztea:** Itxaron zerrendak modu estrukturalen murrizteko Osakidetzan arratsaldeko txanda arruntak ezartzeko konpromisoa, beti ere, pribatura deribatzen ari diren espezialitateak, itxaron zerrenda handiena dutenak eta berme dekretua betetzen ez dutenak lehenetsita. Horretarako, Osakidetzara pertsonala atxiki eta erakartzeko, profesionali 3 urtetarako kontratatua eskainiko zaie, eta pizgarriak ere izango dituzte, ekonomikoak zein beste motatakoak, adibidez, lanbide garapena, formazioa, ikerketa edo egun libreak. Era horretan, Osakidetzak lan kontratu eredua aldatzen hasteko bideari ekingo dio.

DIRU-PARTIDA: 90 MILIOI EURO

- **Lehen Arreta eta Etengabeko Arreta Guneen norabide aldaketa:**
 - **Lehen Arretan medikuak kupoetara atxikitzea, premiaz, pazienteek erreferentziazko lehen arretako ekipo egonkorra dutela ziurtatzeko;** Horretarako, atxikitze neurriak indarrean sartuko dira: desburokratizazio neurriak, kupo berdinean profesionalak mantentzeko pizgarriak, lan kontratua aldatzea pizgarriekin, formazio eta ikerketarekin edo Lehen Arretak orain erantzun ezin dituen pazienteen arazoak erantzuteko beste profil batzuetako profesionalak inkorporatzea, hala nola, gizarte langileak, psikologoak, geriatrak edo administrariak.

DIRU-PARTIDA: 60 MILIOI EURO

- **Lehen Arretan ratioak arau bidez ezartzea;** Ratioak ezartzerakoan adierazle objektiboak kontuan hartuko dira hiri, auzo, herri, edo landa guneetan. Halaber, ekipoak hartuko dira erreferentziazko unitate bezala, eta, ekipo horiek osatzerakoan, hainbat gutxieneko profil planteatuko dira anbulatorio, Osasun Zentro eta Kontsultategietarako.
- **Osasun Komunitarioa eta zaintza garatzeko baliabideak indartzea;** Erakunde Sanitario Integratu bakoitzean, jada funtzio horretarako kontratatutak dauden erizainekin batera aritzeko, gizarte langile, psikologo eta administrari bana inkorporatzea, osasun sustapena, prebentzioa eta zaintza modu planifikatu eta koordinatuan egiazki garatzeko, udaleko zein eskualdeko zerbitzu desberdinekin eta tokiko eragileekin elkarlanean.

DIRU-PARTIDA: 1.500.000 EURO

- **EAG-Etenik Gabeko Arreta Guneetan errefortzuko lanpostuak identifikatu eta azaleratu, egiturazko bilakatzeko;** Etenik Gabeko Arreta Guneetan errefortzu lanpostu gisa kontsideratuak dauden eta gutxienez urte bat baino gehiago errefortzu lanpostu gisa indarrean dauden lanpostuak lanpostu arrunt eta egiturazkoak bilakatzeko izapide administratiboari ekitea.
- **Emergentziak publikatzea eta bere egiturak indartzea:**
 - **Emergentziak ESI-a bere osotasunean publikatzeko lanei ekitea;** 2024an azterketa eta plangintza egingo dira, eta epeak adostuko dira. Agerikoak dira zerbitzuaren kalitatean azpikontratazioak dituen ondorio kaltegarriak, eta kontutan

izanda bere lehentasunezko izaera, ezinbestekoa da zerbitzu hau publikoa izatea bere osotasunean.

- **Heliazalera, koordinazio zentroa eta base bat Donostiako Osasun Hirian txertatzea.** Horretarako, azterketa lan bat egingo da 2024an.
- **Basurtuko bihotz-kirurgia mantentzea.** Horren aldeko behin betiko erabakia hartzea eta, horrekin batera, EAerako bihotz kirurgiako estrategia definitzea, besteak beste, Basurto ospitaleko eta Gurutzeta ospitaleko bihotz kirurgiako bi guneen artean EAE osoari zerbitzua emanaz, eta, ondorioz, Donostiako Poliklinikarekin dagoen kontzertua amaituz.
- **Gipuzkoan eta Araban unitate paliatibo pediatrikoak sortzea:** Gipuzkoan eta Araban paliatiboen unitate pediatrikoa sortzeko konpromisoa, Zainketa Aringarrien Plana behar bezala bermatzeko hiru lurraldeetan eta sarean lan egiteko aukera eskaintzeko.

DIRU-PARTIDA: 300.000 EURO

2. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEKO

NEURRIAK:

Euskal Eskola Publikoa indartzea, jauzi bat eman dezan: Gure hezkuntzaren zutabe den Eskola Publikoa indartzea, Plan Estrategikoaren hurrengo arlo hauetan inbertsioa gehigarriak jasoz:

- Kalitatea (sindikatuekin lortutako akordioa egikaritzea)
- Segregazioaren aurkako borroka (bitartekoak + herri itunerako konpromisoa)

- Azpiegiturak (tartean, jangelak)

DIRU-PARTIDA: 25 MILIOI EURO

3. KALITATEZKOAK ETA DUINAK DIREN ZAINTZAK BERMATZEKO NEURRIAK:

- Egoitzetako egoiliarren eta langileen baldintzak duintzeko funtsa; 126/2019 Dekretua aldatzea, zentro horietako baldintza materialak, funtzionalak eta langileei dagozkienak zehazten dituen, egoiliarrekin eta elkarteetan antolatutako haien senideekin batera, egunean egoiliar bakoitzeko gutxienez 120 minutuko arreta bermatuz eta egoitza horietako lan-baldintzak duinduz; aldaketa horiek gauzatzeko Jaurlaritzak funts bat sortuko du.

DIRU-PARTIDA: 8 MILIOI EURO

- Epe objektiboak ezartzea mendetasun- eta desgaitasun-graduak aitortzeko; Desgaitasun- eta mendetasun-graduen aitortzean gertatzen ari diren atzerapenek, lurraldeen arteko desberdintasun nabarmenekin, gizarte-zerbitzuetarako eskubidea gauzatzea eragozten dute. Horregatik, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea aldatu behar da, horretan desgaitasun- eta mendetasun-graduak aitortzeko gehieneko epe batzuk ezartzeko. Epe horiek igarota, aldaketa horren bidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako erreferentziako profesionalari ahalmena emango zaio egokitasun-preskripzioa baldintza nahikoa izan dadin dagokion prestazioa edo zerbitzua jasotzeko.

2- BIZITZAREN GARESTITZEARI AURRE EGITEKO NEURRIAK

1. ALOKAIUZKO ETXEBIZITZA ESKURAGARRIAGO EGITEKO TALKA NEURRIAK:

- **Alokairu pribatuen prezioak mugatzea:** Jaurlaritzak Estatuko Etxebizitza Legearen zati potestatiboak berehala aplikatzeko konpromisoa, nagusiki:
 - EAeko area tentsionatuak izendatzea, haietan jabe handien definizioa 5 etxebizitzetara jaitsiz.
 - Erreferentziazko prezio-indizeen sistema garatzea.
- **Alokairua sustatzeko zerga neurriak abian jartzea;** Alokairu eskuragarria sustatzeko hobari eta zigor fiskalen arau forala, Foru Aldundiekin batera, berehala prestatu eta Batzar Nagusietara bidaltzeko konpromisoa.
- **Alokairu sozialeko parke publikoa handitu, lehentasunez erosteko eskubidearen bidez;** Babes Publikoko 500 etxebizitza lehentasunez erostea, alokairuko eskari erlatibo handieneko herri eta hirietan, ondoren alokairu babestuan ezartzeko.

DIRU-PARTIDA: 65 MILIOI EURO

- **Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea;** Jaurlaritzak udalentsako laguntza-lerro bat sortzea, bai teknikoa bai ekonomikoa, etxe hutsen dekretua aplikatzen laguntzeko.

DIRU-PARTIDA: 5 MILIOI EURO

2. GUTXIENeko SOLDATA PROPIO EGINGARRIA EGITEKO NEURRIAK:

- **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errealitatearekin bat egiten duen gutxieneko soldata indarrean jartzeko zenbait azterketa egin eta mahai bat osatzea:**
 - Gure eremuan aplikagarriak diren lan-hitzarmen kolektiboen azterketa, jakiteko zer hitzarmenetan eta zer lanbide-kategoriatan dauden 1.400 eurotik beherako soldatak.
 - Lan-hitzarmen kolektiborik ez izateagatik onuradun izan daitezkeen langileen azterketa.
 - Europako Gutun Sozialak gutxieneko soldata kalkulatzeko finkatzen dituen irizpideen aplikazioari buruzko azterketa.
 - Azterketa juridikoa, jakiteko zein litzatekeen formula edota figura juridiko eraginkorrena 1.400 euroko gutxieneko soldata horrek al bait aplikazio zabalena izateko.
 - Ordezkaritza handiena duten enpresa eta sindikatuekin Lan Harremanen Kontseiluan Mahai bat osatzen gidatzea, horren deialdia eginez, aipatutako azterketak eta eragileek eska ditzaketen beste bitarteko batzuk haien eskura jarritz, dinamizatzeko zein negoziazioetan bitartekaritza lana egiteko ere bere gain hartuz.

- **Bere menpeko eremuetan 1.400 euroko gutxieneko soldata bermatzea:** Lidergoa erakutsiz, kontratazioak sustatzeko diruz lagunduriko programa eta neurrietan 1.400 euroko gutxieneko soldata ezartzeko konpromisoa, kalitatezko enpleguaren aldeko zein prekaritatea diruz ez finantzatzeko hautu irmoa eginez.

DIRU-PARTIDA: 3 MILIOI EURO

- **Gutxieneko soldata propio indarrean jartzeko negoziazioak abiatzea:** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errealitateari egokituriko gutxieneko soldata indarrean jartzeko mekanismoak Estatuarekin lehentasunez negoziatzeko konpromisoa, gure errealitate sozioekonomikoari, produkzio-ereduari, langileen kualifikazio eta dibertsifikazioari eta gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakalari behar bezala erantzuteko.

3. PENTSIO BAXUENAK DUINTZEKO NEURRIAK:

- **Pentsio baxuenak 1.080 euro arte, 14 ordainsaritan, osatzeko funtsa:** bizitzaren garestitzea gogor jotzen ari da pentsio baxuenekin bizi direnak, gehienak emakumeak, eta ildo horretatik premiazkoa da arazoari heltzea, horretarako funts berezia sortuta.

DIRU-PARTIDA: 15 MILIOI EURO

3- TRANTSIZIO ENERGETIKOAN SAKONTZEKO NEURRIAK

1. **Energiaren demokratizazioa:** Herritarren, erakunde publikoen zein enpresen mugarik gabeko parte hartzea bermatzen duten 10 MW-tik gorako potentziako energia berriztagarriko proiektuetan Energiaren Euskal Erakundeak parte hartuko duela bermatzea, gutxienez proiektu bakoitzaren %25arekin.

DIRU-PARTIDA: 30 MILIOI EURO

2. **Baliabide fosilen desinbertsiorako bide-orria onartzea 2024an zehar:** Energiaren Euskal Erakundeak 2030. urtea baino lehen bere aktibo fosil guztiak alboratzeko eta berriztagarrietan eta eraginkortasun energetikoan zentratzeko konpromisoa. Hasteko, SHESAren desagerpen data finkatu, 2025 baino lehen.

3. **Bono Energetikoa indarrean jartzea,** energiaren fakturak arintzeko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako familia-errentaren batez bestekoaren beherakoei (45.000 €).

DIRU-PARTIDA: 25 MILIOI EURO

4. **Energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarrietarako laguntzak handitzea:** Zehazki, horien inbertsioetarako laguntzen programa bikoiztea, 50 milioi eurora arte.

DIRU-PARTIDA: 25 MILIOI EURO

4- IKUS-ENTZUNEZKO SEKTORE ESTRATEGIKOAN EUSKARA ERDIGUNEAN

Euskarazko ikus-entzunezko edukien unibertsoa hazteko inbertsioa: Estrategikoa den arloa euskarazko edukiez hornitzeko beharrezkoa da produkzio propioen aldeko apustu sendoa egitea, are gehiago Primeran plataforma hedapen fasean dagoen honetan.

DIRU-PARTIDA: 6,6 MILIOI EURO